

**OIARTZUNEN GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK GIZARTEAN
ETA LANEAN INTEGRATZEKO ELKARTEAREN
(ARRAZTALO)
ESTATUTUAK**

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGEZKO ERREGIMENA

1. artikulua.-

Honako estatutu hauek, “OIARTZUNEN GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK GIZARTEAN ETA LANEAN INTEGRATZEKO ELKARTEA-(ARRAZTALO)”-ren estutuak, AS/G14901/2010 erregistro zenbakia dutenak eta 2010eko urtarrilaren 13an erregistratuak, aldatu egin dira, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13. artikuluetan xedatutakoaren arabera, 7/2007 Legeak, ekainaren 22koak, Euskadiko Elkarteei buruzkoak eta 1/2002 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Elkartze Eskubidea Arautzen duenak, xedatutakoari jarraiki.

Elkartea arautzeko Elkarteei buruzko Legeek agindutakoei; Legearekin kontraesanean ez dauden Estatutu hauei; betiere Legearekiko edota Estatutuekiko kontrakoak ez badira, gobernu-organoek modu baliagarrian hartutako erabakiei eta Eusko Jaurlaritzak onartutako araubidezko xedapenei erreparatuko zaie. Azkenekoak osagarriak izango dira.

PROPOSATZEN DITUEN XEDEAK

2. artikulua.-

Elkartearen xedeak honako hauek dira:

- a) Oiartzunen bizi diren pertsonak lanean eta gizartean integratzeko jardueramota guztiak bultzatu eta sustatzea, horiek gaixotasun mentalen bat dutenentzat bideratuak badira.
- b) Elkartea, 13/1982 Legeak, apirilaren 7koak, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzkoak, 42. artikuluan aurrez ikusitako Enplegu Zentro Bereziaren titularra izatea.
- c) Aurrekoekiko beste edozein jarduera osagarri egitea.

Xede horiek lortzeko, hurrengo jarduerak egingo dira, berez edo beste pertsonekin edo erakundeekin, publiko eta pribatuekin, lankidetzan.

- Oiartzunen gaixo mentalak lan-munduan integratzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea eta kudeatzea.
- Bere lurralde-eremuan gaixo mentalak gizarteratzen lagun dezaketen jarduerak antolatu, bultzatu eta kudeatzea: analisia eta ikerketak, jarduera-programak, hitzaldiak...

- Erakunde publiko eta pribatuen inplikazioa bultzatzea Oartzunen gaixo mentalak lanean eta gizartean integratzeko zerbitzuak sortu eta mantentzeko orduan.

Aurreko atalean deskribatutako jarduerak alde batera utzi gabe, Elkartek bere xedeak betetzeko honakoak egin ahal izango ditu:

- Mota guztietako jarduera ekonomikoak garatzea, xedeak gauzatzeko edo helburu horrekin bitartekoak lortzeko.
- Mota guztietako ondasunak, edozein titulu erabiliz, lortu eta izatea eta mota guztietako egintzak eta kontratuak gauzatzea.
- Legeekin eta Estatutuekin bat ekintza-mota guztiak egitea.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.-

Elkarte honen helbide nagusia edo egoitza soziala Oartzunen (Gipuzkoa), Larrezabaleta auzoko 15. zenbakian (PK: 20180) kokatuko da.

Elkartek beste lokalak izan ditzake, Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.-

Bere funtzioak nagusiki Oartzunen garatuko ditu.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.-

Elkartea izaera iraunkorrarekin eratu da eta bakarrik Ohiz Kanpoko Batzar Nagusiaren erabakiz desegingo da, VI. kapituluan xedatutakoaren edo Legeak aurrez ikusitako edozein arrazoiren arabera.

Elkartearen barruko antolaketak eta funtzionamenduak demokratikoa izan beharko du eta pluraltasuna erabat errespetatu beharko da. Eskubide osoz ez dute baliorik izango elkartearen oinarrizko eskubidearen edozein alderdi ezagutzen ez duten itunek, estatutu-xedapenek eta erabakiek.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU-ORGANOAK ETA ADMINISTRAZIOA

6. artikulua.-

Elkartearen gobernua eta administrazioa hurrengo organo kolegiatuen kargura egongo da:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo nagusi bezala.
- Zuzendaritza Batzarra, zuzendaritza iraunkorraren organo kolegiatu bezala.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.-

Batzar Nagusia bazkide guztiek osatuko dute eta horien borondatea adierazteko organoa da.

Batzar Nagusiak honako ahalmenak ditu:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzarraren kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta zuzendaritza-batzarreko gainerako kideak hautatu eta kargutik kentzea, baita ikuskatu eta kontrolatzea ere.
- g) Beste elkarteekin federazio edo konfederazio-egintzak edo horietakoren bat uztea.
- h) Ondasun higiezinak besterentzea.
- i) Elkartean dauden pertsonak behin betiko bereizteko erabakia hartzea.
- j) Sozietatearen beste organoari egotzia ez dagoen edozein aginpide.

8. artikulua.-

Batzar Nagusia ohizko eta ohiz kanpoko saioetan bilduko da.

Era berean, Batzar Nagusia erregimen unibertsalean eratuz bil daiteke, Elkarteko bazkide guztiek aho batez onartzen dutenean saioa egitea eta gai-zerrenda. Erregimen unibertsalean batzar-saioari ekiten zaionean, bazkide

batek edo batzuek saioa utziz gero, ez da bertan behera utziko eta erabakiak baliagarriak izango dira.

9. artikulua.-

Batzar Nagusia ohizko saioan bildu beharko da, gutxienez urtean behin, lehenengo hiruhilekoaren barruan, 7 a), b) eta c) artikuluan aurrez ikusitako erabakiak hartzeko.

10. artikulua.-

Batzar Nagusia ohiz kanpoko saioan bilduko da, Zuzendaritza Batzarrak hala erabakitzen duenean, edo ekimen propioz, ala elkartean dagoen erdiak baino gehiagok (%50ek baino gehiagok) eskatzen duelako. Arrazoiak eta bileraren helburua azalduko dira eta, nolana ere, hurrengo gaiei buruz ezagutu eta erabakitzeko:

- a) Estatutuen aldaketak.
- b) Elkartea desegitea.

11. artikulua.-

Batzar Nagusirako deialdiak idatziz egingo dira eta bilerarako tokia eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere. Landuko diren gaiak zehatz-mehatz aipatuko dira. Lehenengo deialdian Batzarra egiteko aipatutako deialdiaren eta egunaren artean gutxienez hamabost egun egon beharko dira. Gainera, hala badagokio, Batzarra bigarren deialdian biltzeko data eta ordua aipatuko dira. Bien artean ez da ordu erditik beherako epea izango.

Batzar Nagusiak, bai ohizkoak, bai ohiz kanpokoak, modu baliagarrian osatuko dira lehenengo deialdian, bertan elkartean sartuta dagoen erdia dagoenean boto eskubidearekin; eta bigarren deialdian boto eskubidea duen edozein bazkide-kopuru izan daiteke.

12. artikulua.-

Batzar Nagusiaren erabakiak bertan edo ordezkatuak dauden pertsonen botoen gehiengo soilarekin hartuko dira, hau da, erabakiak baiezko botoek ezezkoak gainditzen dituztenean hartuko dira. Hala eta guztiz ere, bertan edo ordezkatuak dauden pertsonen botoen 2/3 beharko da hurrengo erabakiak hartzeko:

- a) Elkartea desegiteko.
- b) Estatutuak aldatzeko.
- c) Ondasunak utzi edo besterentzeko.

13. artikulua.-

Bazkideek ordezkaritza eman diezaiokeste beste edozein bazkideri, Batzar Nagusira joateko. Ordezkaritza idatziz egingo da eta Batzarraren Idazkariaren esku egongo da saioa egin eta gutxienez 12 ordu lehenago.

ZUZENDARITZA-BATZARRA

14. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarra Batzar Nagusiaren xedapen eta gidalerroekin bat elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko ordezkaritza-organoa da. Ordezkaritza-organoan bakarrik bazkideak egon daitezke.

Zuzendaritza Batzarra Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak eta gutxienez bokal batek (1) eta gehienez bost (5) bokalek osatuko dute.

Gutxienez sei hilez behin bildu beharko dira eta betiere elkartearen jardueraren garapen egokiak hala eskatzen duenean.

15. artikulua.-

Kideak aipatu Zuzendaritza Batzarretara ez badira joaten 3 aldiz ondoz ondo edo 6 txandakatuta arrazoi justifikaturik gabe, kargua utzi beharko dute.

16. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarra osatzen duten karguak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu eta 4 urtez iraungo dute, berriaz baliogabetzen ez badira. Berriz hautatu ahal izango dira.

17. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarrekoa izateko ezinbesteko baldintzak dira honakoak:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibilak oso-osorik erabili ahal izatea eta indarreko legeriak xedatutako bateraezintasunaren arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurrez ikusitako moduan izendatzea.
- c) Erakundearen bazkidea izatea.

18. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarreko kidearen kargua onartuko da Batzar Nagusiak izendatu ostean, onartu edo kargua hartzen denean.

Zuzendaritza Batzarreko kideek bere karguaren arabera ezingo dute ordain ekonomikorik jaso.

19. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarreko kideek kargua utziko dute hurrengo kasuetan:

- a) Agintaldia amaitzen denean.
- b) Kargua uzten dutenean.
- c) Bazkidea izateari uzten zaionean edo bateraezintasunaren arrazoia dagoenean.
- d) Estatutuek 16. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatuz, Batzar Nagusiak balio gabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen denean.

a) atalean aurrez ikusitako arrazoiarengatik kargua uzten denean, Zuzendaritza Batzarreko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo Batzar Nagusia egin arte. Orduan kargu berriak hautatuko dira.

Organoaren konposizioan aldaketa guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

20. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarrak honako funtzioak ditu:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren gidalerroekin bat eta bere kontrolpean.
- b) Elkarteak garatu behar dituen jarduerak programatzea.
- c) Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuen egoera Batzar Nagusiak onartzeko aurkeztea.
- d) Batzar Nagusiaren bileren gai-zerrenda egitea eta ohizko nahiz ohiz kanpoko Batzar Nagusien deialdiak adostea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamenei eta iradokizunei arreta eskaintzea eta, xede horrez, beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetan dauden aginduak interpretatzea eta hutsuneak betetzea, betiere elkartearen arloan indarreko lege-araudia betez.
- g) Batzar Nagusiak berriazko erabakiz ematen dizkion aginpideak betetzea, betiere aginpide esklusiboak ez badira.

21. artikulua.-

Zuzendaritza Batzarrak Lehendakaritzak zehazten duen guztietan egingo ditu bere saioak, bai bere ekimenez, bai gutxienez kideen erdiak eskatuta. Lehendakaria izango da buru eta hori izan ezean, Lehendakariordea.

Zuzendaritza Batzarra bil daiteke erregimen unibertsalean osatuz, kide guztiek aho batez saioa egitea eta gai-zerrenda onartzen dutenean. Erregimen unibertsalean saioa egiten hasten denean, kide batek edo gehiagok saioa utzi arren, ez da bertan behera utziko eta saioan hartutako erabakiak baliagarriak izango dira.

Batzarreko erabakiak baliagarriak izateko, bertan dauden pertsonen botoen gehiengoz hartu behar dira eta gutxienez kideen erdiak bertan egon beharko du.

Berdinketa izanez gero, Lehendakariaren botoa kalitatekoa izango da.

Saioen akta egingo du Idazkariak eta dagokion liburura transkribatuko da.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.-

Elkartearen Lehendakariak horren legezko ordezkaritza onartuko du eta Zuzendaritza Batzarrak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak beteko ditu. Bi horien lehendakaria izango da, hurrenez hurren.

23. artikulua.-

Lehendakariari dagozkio hurrengo funtzioak:

- a) Zuzendaritza Batzarrak eta Batzar Nagusiak egingo dituen saioak deitzea eta amaitzea, bataren eta bestearen eztabaidak zuzentzea eta bozketetan berdinketa izanez gero, kalitate-botoa erabakitzea.
- b) Zuzendaritza Batzarrari Elkartearen jarduera-plana proposatzea eta bere zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz onartutako ordainketak agintzea.
- d) Premiaz sor daitezkeen gaiak ebaztea eta horren berri Zuzendaritza Batzarrari ematea egiten duen lehenengo saioan.
- e) Berariazko erabakiz Batzar Nagusiak ematen dizkion aginpideak betetzea, horren aginpide eskusiboa diren kasuetan izan ezik.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.-

Lehendakariordeak Lehendakariari bere funtzioetan laguntzeko zeregina izango du. Era berean, Lehendakariak berariaz eskuordetzen dituen funtzioak betetzea dagokio. Ez etortzeagatik edo aldi baterako ezintasuna izateagatik karguan dagoen bitartean Lehendakariordeak Lehendakariari ordezkatu arren, lehenengoak ez du kalitate-botoa izango erabakiak hartzeko organo desberdinetan bozketen ondoren berdinketak gertatzen direnean.

IDAZKARIA

25. artikulua.-

Idazkariari dagokio zehatz-mehatz sartzeko eskaerak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua eramatea, Akten Liburua zaindu eta idaztea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla zainduko du. Ildo horri jarraiki, Erakundearen dokumentazio ofiziala babestuko du, sozietatearen liburuaren eta artxiboen edukia ziurtatuko du eta Zuzendaritza Batzarraren izendapenari eta sozietatearen helbidearen aldaketari buruzko derrigorrezko komunikazioak egingo dizkio agintaritza eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.-

Diruzainak jakinaraziko ditu diru-sarrerak eta ordainketak, diru-sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua legeztatuko du, baita aurreko urteko kontuen egoera ere. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzarrari aurkeztuko zaizkio, aldi berean, horrek Batzar Nagusiaren aurrean jartzeko. Azkenekoak onartu beharko ditu.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEEI BURUZKOA: BALDINTZAK ETA ONARPEN-PROZEDURA ETA MOTAK

27. artikulua.-

Elkarteen bazkideak izango dira fundatu duten pertsona fisikoak eta, ondoren, bazkide bezala onartuak izango direnak estatutuen kapitulu honetan aurrez ikusitako prozedurarekin bat.

Elkarteen bazkide izateko, nahi duten pertsona fisikoek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Adin nagusikoa edo adin txikiko emantzipatua izatea eta bere eskubidea betetzeko legezko baldintzarik ez izatea eta behin betiko ebazpen judizialaren babesean gaitasuna mugatua ez izatea.

- Gaixotasun mentala duen Oiartzungo pertsona izatea, baita minusbaliotasuna duen pertsonaren senitartekoa edo tutorea izatea ere, gizartean eta lan-merkatuan integratzeko aukera badu.
- Bazkide batek bermatzea.

Era berean, bazkideak izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak nahiz eta arestian xedatutako bigarren baldintza ez bete, elkartearen helburuak lortzen lankidetzan jardun nahi badute.

28. artikulua.-

Pertsona proposatua bazkide izateko, Elkartearen Zuzendaritza Batzarraren aldeko erabakia beharko da.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA EGINKIZUNAK

29. artikulua.-

Bazkide den pertsona orok hurrengorako eskubidea du:

- 1) Elkartearen Legearen edo Estatutuen kontra doazen erabakiei eta jardueri kontra egitea berrogei egun naturalen buruan, kontra egiten duenak kontra egiten duen erabakia ezagutzen duen edo ezagutzeko aukera izan duen unetik zenbatzen hasita.
- 2) Elkartearen gobernu-organoen eta ordezkariaren konposizioari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruz berri izatea.
- 3) Edozein unetan Elkartearen gainerako kideen identitatea, diru-sarreraren eta gastuen egoera eta jardueraren garapena ezagutzeko, datu pertsonalak babesteko legeriak aurrez ikusitako baldintzapean.
- 4) Batzar nagusietarako deialdia egitea, bertan izatea eta Batzar Nagusietan ahotsa erabili nahiz botoa emateko eskubidea erabiltzea; xede horrez, bere ordezkariak beste kideren bati eman diezaiolke.
- 5) Estatutu hauekin bat, Elkartearen zuzendaritza-organismoetan parte hartzea.
- 6) Indarreko legerian aurrez ikusitako bazkideen fitxategian agertzea.
- 7) Estatutuen eta, hala balego, Barneko Erregimenari buruzko Araudiaren ale bat izatea eta zuzendaritza-organoen aurrean eskaerak eta kexak aurkeztea.
- 8) Sozietatearen ekitaldi kolektiboetan parte hartzea eta bazkideen erabilera komunerako elementuez (sozietatearen lokala, etab.) gozatzea.
- 9) Idatziz entzuna izatea, diziplina-neurriak hartu baino lehen eta arrazoi berri izatea. Bakarrik bazkide bezala dituen eginbeharrak ez betetzean oinarritu ahal izango dira.
- 10) Edozein unetan baja ematea, betetzeke dauden konpromisoak alde batera utzi gabe.

30. artikulua.-

Bazkidearen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Elkartearen helburuak partekatzea eta gauzatzeko lankidetzan jardutea.
- b) Estatutuen ondorioz sortutako gainerako betebeharrak betetzea.
- c) Elkartearen gobernu-organismoek modu baliagarrian hartutako erabakiak onartu eta betetzea.

BAZKIDEAREN IZAERA GALTZEA

31. artikulua.-

Bazkidea izateari utziko zaio hurrengo kasuetan:

1. Hiltzen denean.
2. Idatziz interesatuak borondatez uztea eskatzen duenean; kasu horretan berak elkarteari egindako ekarpen ekonomikoak jaso edo erreklamatzeko ez da eskubiderik izango.
3. Zigorren ondorioz Zuzendaritza Batzarrak bereizten duenean; horretarako, honako egoeraren bat gertatu behar da: Estatutu hauen ondorioz sortutako eginbeharren ez-betetze larria, errepikatua eta nahita egindakoa. Gauza bera gertatuko da Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzarrak modu baliagarrian hartutako erabakiekin.

ZIGOR-JARDUNBIDEA

32. artikulua.-

Bazkide diren pertsonen Zuzendaritza Batzarrak zigor diezaieke Estatutuak edo Batzar Nagusiak ala Zuzendaritza Batzarrak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik.

Zigorak honakoak izan daitezke: eskubideak 15 egunetik hilabetera bitartean etetetik hasita, behin betiko bereizi arte, hurrengo artikuluetan aurrez ikusitako baldintzetan.

Xede horiez, Lehendakariak ikerketa egitea erabaki dezake zigor daitezkeen jokabideak argitu ahal izateko. Jarduerak Idazkaritzak egingo ditu organo izapidegile bezala eta Zuzendaritza Batzarrari proposatuko dio neurri egokiak hartzea.

Zigorak jartzea Zuzendaritza Batzarraren ahalmena izango da eta Idazkariak (organo izapidegileak) ez du parte hartuko. Aldez aurretik pertsona interesatuari entzungo zaio. Erabakiaren kontra (betiere arrazoitu egingo da) Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsioa jarri ahal izango da.

33. artikulua.-

Bazkidea elkartetik bereizteko ustezkoren batean sartuz gero, Estatutuen edo Batzar Nagusiak ala Zuzendaritza Batzarrak modu baliagarrian hartutako

erabakien eginbeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita ez betetzearen ondorioz; Lehendakariak Idazkaritzari agin diezaioke aurrez ikusitako izapideak egitea informazio egokia lortzeko. Hori ikusirik, Lehendakariak jarduerak artxibatzea edo bereizteko zigor-espeditentea hastea agin dezake.

34. artikulua.-

Bereizteko zigor-espeditentea hasiko balitz, Idazkariak, gertaerak egiaztatu ondoren, pertsona interesatuei idazki bat bidaliko die eta egozten zaizkion karguak azalduko ditu. Erantzun ahal izango du bere defentsan egokia iruditzen zaiona azalduz hamabost egunen buruan. Nolanahi ere, epea igarotzen denean, gaia Zuzendaritza Batzarreko lehenengo saioaren gai-zerrendan sartuko da eta berak dagokiona erabakiko du, Idazkariaren botorik gabe, espeditentean izapidegilea izan baita.

Bereizte-erabakia pertsona interesatuari jakinaraziko zaio eta erabakiaren kontra lehenengo ohiz kanpoko Batzar Nagusian errekurtsioa jar dezakeela adieraziko zaio. Horretarako deialdia hiru hilabetetan egiten ez bada, bakarrik hori lantzeko egin beharko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzarrak pertsonari bazkide bezala dituen eskubideak etetea erabaki dezake eta Zuzendaritza Batzarraren barruan balego, karguan etetea agin dezake.

Bereizte-espeditentea Batzar Nagusiak lantzea erabakitzen bada, Idazkariak espeditentearen laburpena idatziko du, Zuzendaritza Batzarrak Batzar Nagusiari pertsona errudunak aurkeztutako idazkiaren berri emateko eta gertaerak behar bezala jakinarazteko. Hala, Batzarrak erabaki egokia hartu ahal izango du.

35. artikulua.-

Bereizte-erabakia betiere arrazoitua izango da eta pertsona interesatuari jakinaraziko zaio. Horrek Estatutuek aurrez ikusitako bide arbitralean kontra egin ahal izango du dagokion eskubidea aplikatu, Legearen edo estatutu-testuaren kontra doala uste duenean.

36. artikulua.-

Bazkide bati Elkartetik bereizi zaiola jakinarazten zaionean, bai borondatez, bai zigorraren ondorioz, hala badagokio, horrekin dituen betebeharrak betetzea eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

ERATZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-JARDUNBIDEA

37. artikulua.-

Elkarteak ez du eratze-ondarerik.

38. artikulua.-

Sozietatearen jarduerak garatzeko Elkarteak aurrez ikusitako bitarteko ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a) Dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak eta legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak nahiz dohaintzak.
- b) Zuzendaritza Batzarrak egitea erabakitzen duen legezko jardueren bidez Elkarteak lortutako diru-sarrerak, betiere estatutuen helburuen barruan.

Elkartearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urtero itxiko da abenduaren 31n.

Jarduera ekonomikoak (zerbitzuaren prestazioak barne) egitearen ondorioz, elkarteak lortutako irabaziak, bakarrik helburuak betetzera bideratu beharko dira. Ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko, ezta horiekin bizi diren ezkontideen edo pertsonen artean ere. Gauza bera gertatuko da senitartekoen artean. Halaber, ez zaizkie doan lagako pertsona fisiko edo juridikoei, irabazi-asmoa badute.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEARI BURUZ

39. artikulua.-

Estatutuak aldatzea bazkideen ohiz kanpoko Batzar Nagusiak erabaki beharko du eta berariaz horretarako deialdia egingo da. Zuzendaritza Batzarrak lau (4) pertsona bazkidez osatutako Ponentzia izendatuko du, aldaketa-proiektua idazteko, berak emandako gidalerroei jarraiki. Era berean, proiektua amaitzeko epea finkatuko du.

40. artikulua.-

Aipatu epean aldaketa-proiektua idazten denean, Lehendakariak Zuzendaritza Batzarreko lehenengo gai-zerrendan sartuko du eta onartu egingo da edo, hala badagokio, Ponentziari bidaliko zaio azterketa berria egiteko.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzarrak hurrengo Batzar Nagusiaren gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo xede horrez deialdia egitea erabakiko du.

41. artikulua.-

Batzarraren deialdiarekin batera Estatutuen aldaketa-testua aurkeztuko da, bazkideek Idazkaritzari egokitzat jotzen dituzten zuzenketak bidaltzeko. Horien berri Batzar Nagusian emango da, betiere Idazkaritzaren esku badaude saioa egin baino zortzi egun lehenago.

Zuzenketak banan-banan edo taldean formula daitezke, idatziz egingo dira eta beste testu alternatiboa izango dute. Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Nagusiak estatutuen aldaketa-erabakia hartuko du eta bakarrik hirugarrenen

aurrean ondorioak izango ditu Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen den unetik.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEARI ETA SOZIEATEAREN ONDAREA APLIKATZEARI BURUZ

42. artikulua.-

Elkartea honakoetan desegingo da:

1. Bazkideen borondatez, xede horrez deitutako ohiz kanpoko Batzar Nagusian adierazten bada.
2. Beste elkarteek xurgatu edo horiekin elkartu ondoren.
3. Desegitea onartzen den behin betiko epai judizialaren bidez.
4. Sozietatearen helburuak betetzea ezinezkoa denean.

43. artikulua.-

Elkartea deseginez gero, desegitea erabakitzen duen ohiz kanpoko Batzar Nagusiak Kitapen Batzordea izendatuko du eta Zuzendaritza Batzarreko lau (4) kidek osatuko dute. Hori dauden funtsez arduratuko da.

Bazkideen eta hirugarren pertsonen aurrean sozietatearen betebeharrak ordaindu ondoren, soberan gelditzen den sozietatearen ondarea Oiarzungo Udalari entregatuko zaio Elkarteak sustatzen dituen helburuetan erabiltzeko.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

ARBITRAJEA

44. artikulua.-

Arbitrajeari buruzko legerian aurrez ikusitakoarekin bat eta horren arabera, Elkartearen bazkide kideek eta bere organoek berariaz uko egingo diote dagokien beste edozein foruri eta izendatutako Arbitroak ekitatez egindako arbitrajea beteko dute Elkartearen barruan sortutako gaien edo jardueren ondorioz, kontra egiten denean, errekurtsoak jartzen direnean, auziak, eztabaidak, liskarrak daudenean.

Bazkideek Elkarteari atxikita Estatutuetako artikulua honetan aurrez ikusitako formula arbitrala onartzen dute eta Arbitroak prozedura arbitraletan berariaz emandako laudo arbitrala betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Elkartearen alderdietan Arbitroak emandako arbitrajeari buruzko guztia 60/2003 Legeak, abenduaren 23koak, Arbitrajeari buruzkoak aurrez ikusitakoaren bidez arautuko da.

Elkartearen Arbitroa edo hori izendatzen duen pertsona bazkideen Batzar Nagusiak izendatuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Elkartek ez du inolako saririk jasoko bazkideengandik.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Nagusiak Barne Erregimeneko Araudia onar dezake Estatutu hauek garatzeko. Dena delakoa, bertan dauden aginduak ez ditu inolaz ere aldatuko.